

Gaitasun handiko neska- mutikoentzako ikastaroak Muskizen

Otsailaren 5ean ekin zitzaion Muskizko Kultura Etxean Etekin Intelektual Handiko Taldeentzako ikastaroari. ADIMAC (Asociación para el Desarrollo Integral de Menores con Altas Capacidades) elkarrekin antolatutako egitaraua da ikasleen gurasoen laguntzaz, Muskizko udalaren babesaz eta Petronorren ekarpenaz. Guztira hamabost eskola-ume muskiztar dira ikastaro honetan parte hartuko dutenak otsailetik ekainera bitartean.

Honelako ikastaroak Ezkerraldeko hainbat udalerritan izango badira ere, Muskizen, Zierbenan eta Abanto- Zierbenan eratutakoek bereganatuko dute Petronorren dirulaguntza.

Gainera, ADIMAC-ek “neska-mutiko motibatuak dituzten familien lehen topaketa”-ra hurbiltzeko deialdia egin die ADIMAC-ek azken hileotan informazioa eta trebakuntza eskatu duten guraso guztiei. Topaketa martxoaren 28an ospatuko da goizeko 10ak eta eguerdiko ordu bata bitartean, Bilboko Liburutegi Nagusian.

ADIMAC-en zuzendaritzak zalantzak argituko ditu eta han azaldu ahal izango dira guztien iritziak, ekarpenak edo iradokizunak.

Muskizen, 2009ko martxoaren 4an.